

Dorre garabiko operadore-txartela lortzea

Txartela lortzeko, honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatu beharko da:

1. Adin nagusitasuna
2. Dorre garabiaren operazioetarako beharrezko ezagutzak izatea.
3. Ikusmen zolitasun, orientazio sen, oreka, entzumen zolitasun eta gaitasun psikologikoei buruzko azterketa mediko bat gainditu behar da. Azterketa hori gainditzen ez bada, azterketa hori egiten duen zentroak edo medikuak bere autonomia-erkidegoan industria-arloko eskumena duen organoari jakinarazi beharko dio.

2. puntua honela justifikatuko da:

- 1) Honako baldintza hauek betetzea:

- o **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua** edo lan-ondorioetarako titulu baliokide bat izatea.
- o Autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako **azterketa** gainditzea.
- o Autonomia erkidegoko organo eskudunak **onartutako entitate batek emandako ikastaro teoriko eta praktikoa** bat gainditzea.

Dorre garabiko operadoreak prestatzeko entitateak

Entitatea	Herria	Helbidea	Telefonoa
CONSTRUCCIONES METÁLICAS COMANSA SA	Uhartea	Agoizko errepidea, 1	948335020
LIEBHERR INDUSTRIAS METÁLICAS SA	Iruña	AGUSTINOS INDUSTRIALDEA C/E	948297048
NAVARGRU SL	Orkoien	Agustinos G kalea, D-37 lurzatia	948351008
IFES	Iruña	Marcelo Zelaieta, 75, C2 nabea (Iwer eraikina)	948153193
FLC NAVARRA	Uhartea	Areta industrialdea, Bideberri kalea, 56	948382348

- 2) **Pertsonak ziurtatzeko**, egiaztaturiko entitate batek emandako ziurtagiri bat edukitzea, ENACek edo izendatutako beste edozein Egiaztatze Erakunde Nazionalak emana, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (produktuen merkaturatzeari dagokionez merkaturatzea egiaztatze eta zaintzeko betekizunak ezartzen dituen eta 339/93 (EEE) Erregelamendua indargabetzen duena), UNE- EN ISO 17024 arauaren arabera. Egiaztaturiko entitateak webgune honetan kontsulta daitezke: <https://www.enac.es/web/enac/entidades-acreditadas/buscador-de-acreditados>
- 3) Lanbide Heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat izatea, Profesionaltasun Ziurtagirien Errepertorio Nazionalan sartuta dagoena, eta haren eskumen-eremuak barne hartzen dituen azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuak onartutako jasogailuei eta haien mantentze-gailuei buruzko erregelamenduen eta instrukzio tekniko osagarri honen xede diren gaiak.

Txartela Internet bidez izapidetuko da, ondoko izapidetaren orrian:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/linea/segurtasun-industrialaren-arloko-lanbide-txartelak>

edo edozein administrazio publikoren erregistro-bulegoetan, kontsultatu hemen:

<https://www.navarra.es/eu/herritarren-arreta/bulegoetako-arreta>

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabidea.
- Txartelagatik emandako 15 euroko tasari dagokion ordainketa gutuna.
- Kasu bakoitzean baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Txartela berritzea

Txartela berritzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera:

- Gidariei osasun azterketak egiteko zentro batek emandako ziurtagiri mediko bat, autopropultsatutako garabi mugikorrerako txartela lortzeko gaitasuna adierazten duena.
- Txartelagatik emandako 15 euroko tasari dagokion ordainketa gutuna.